

ERREPUBLIKANISMOA GIPUZKOAN (1868-1923): BILAKAERA, SUSTRAIAK, GIZARTERATZEA ETA PROSOPOGRAFIA

Tesiaren egilea: Unai Belaustegi Bedialauneta

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Garaiko Historia Saila

Tesi-zuzendaria: Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga eta Mikel Urquijo Goitia

Tesiaren laburpena:

Errepublikanismoa, beste edozein gobernu-sistemaren aurrean eta monarkiarekin aurkakotasunean, errepublika aldarrikatzen duen mugimendu politikoa da, diskurtsoa modernitatearekin, demokraziarekin eta laikotasunarekin lotuta daramana.

Ikerketaren abiapuntua 1868an jarri da, Espainiako estatuan errepublikanismo antolatua plaza publikoan orduan agertu baitzen. Amaitu, berriz, 1923an, Primo de Riveraren diktadurak errepublikanismoa hibernazio politikora baztertu zuenean, ordura arteko bilakaera zapuztuz.

Tarte horretan, Gipuzkoan, bi korrante errepublikano nagusi nabarmendu ziren. Batetik, sektore kontserbadorea edo otzana, politikoki moderatua. Bestetik, errepublikanismoa egitura propio eta autonomo bezala aurkeztu nahi izan zutenak izan ziren. Lehendabizikoak batez ere Donostian egin ziren indartsu, Alderdi Liberalean eta ondoren liberalekin koalizio ezberdinetan parte hartuz. Bigarrenak, erradikalagoak, aurrena Tolosan eta Eibarren, eta ondoren, hiriburuan bertan, federalismoaren siglapean agertu ziren. Otzanen artean, ideologia politikoak eragindako kezkak baino estrategia politiko, ekonomiko eta sozialek garrantzia handiagoa hartu zuten. Erradikalagoek, koherentzia politikoa mantenduaz, populuarekiko hurbiltasun handiagoa erakutsi zuten.

Hemen, *La Voz de Guipúzcoa*-ren (1885-1923) garrantzia aipatu behar da. Otzanen prentsa organoa izan zen, etengabe Koalizio Liberalaren aldekoa, eta ordena mantentzearen eta gizarte-egiturak ez aldatzearen defendatzaile sutsua. Errepublikanismoa egituratzeko elementu garrantzitsuak izan ziren egunkariak hasiera-hasieratik, batzuetan alderdiak ordezkatzera iritsiz. *La Región Vasca* edo *La Libertad* horren adibide garbiak dira.

Aspektu ideologikoari buruz esan behar da gipuzkoar nahiz euskal errepublikanoak, hasieran, foruzaleak izan zirela. Foruen abolizioaren ostean, foruen eta foru-erakundeen aldarrikapenen gainetik, probintzien eta diputazioen

autogobernuaren aldeko aldarriak indartu ziren, aldarrikapen autonomistak nagusi izan arte.

Gipuzkoar errepublikanoaren profila ere zehaztu da: XIX. mendearen erdialdean, liberalismoarekin nolabaiteko harremana zuen, eta ekonomikoki klase ertain eta altuko familietan jaiotakoa zen. Goi-mailako ikasketak burutu zituen eta ofizio liberaletan aritu zen. Elkarte eta kasino ugari sortu zituen, baita eremu kontserbadoreagoetan ere, tradizionalistara ohitua zegoen gizartean errepublikanoen erara bizitzeko aukera bakarra hori baitzen. Herri txikiagoetan, gainera, elkarteek alderdi politikoak ordezkatu zituzten, herriko bizitza politikoa zuzentzeko.

Azkenik esan behar da hauteskunde-garaien inguruan nabari dela errepublikanoen mugimendu handiena. Kongresurako hauteskundeetan ez hainbeste, baina Diputaziorako eta udaletarako lehiak ospakizun errepublikanoak bihurtu ziren askotan, propaganda-saio eta mitin ugari apainduak. Lortutako emaitzak nahiko onak izan ziren: Gipuzkoa izan zen, adibidez, Diputaziora ordezkari errepublikano gehien bidali zituen euskal probintzia.

1923ko irailetik II. Errepublika arte, errepublikanismo antolatua lozorroan mantendu zen.